

Hezkuntzaren ikuspegi sozio-kulturalean oinarritutako ikaste-prozesuen karakterizazioa. Kasu baten azterketa: Arrankudiaga Herri Eskola

Tesiaren egilea: Idurre Gastañazatorre Gorrochategui

Unibertsitatea: Mondragon Unibertsitatea (MU)

Saila/Institutua: Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntza inklusiboan

Doktorego-programa: Berrikuntza eta esku-hartzea hezkuntzan

Jakintza-arloa: Hezkuntza

Tesi-zuzendaria: Agurtzane Martinez Gorrotxategi eta Xabier Arregi Murgiondo

Tesiaren laburpena:

Hezkuntzaren arloko ikerketak erakutsi du hainbat eredu didaktiko-metodologiko garatu direla ikaskuntzaren eredu soziokulturalaren printzipioei jarraituz. Lan hau proiektuen inguruan antolatzen diren ikaste-irakaste prozesuetan oinarritzen da. Literaturak erakusten du metodo zientifikoa nagusitu dela proiektuen antolamendu-egitura gisa curriculumaren garapenean, parte-hartzaileen interes eta premiei lotutako indagazio kolektiboetan oinarritutako beste ikuspegi batzuen aldean; azken horiek, ordea, gelako ikasteko bizitzari estuago lotuta daude, eta ikuspegi horri buruzko ikerketa gutxi aurkitu da.

Hala, lan honen helburu nagusia da ikastetxe batean garatutako ikaste-irakaste prozesuak sakonki ezaugarritzea, proiektuak azken ikuspegi horretatik antolatzen baitira, bertan gertatzen diren indagazio-prozesuen ezaugarriak identifikatu, ulertu eta azaltzeko. Horretarako, berezko kasu etnografiko baten azterketa egin da, Arrankudiaga Herri Eskolako Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetan garatutako bi proiektutan oinarrituta. Datuak biltzeko behaketa ez parte-hartzailea, ikus-entzunezko erregistroak eta elkarriketa erdi-egituratuak erabili dira. Datuen analisia bi mailatan egin da: lehenengoan, edukiaren azterketaren bidez, proiektuen faseak ezaugarritu dira; bigarrean, interaktibitatea aztertuz, indagazio-prozesuak karakterizatu dira.

Ikerketak ikaste-irakaste prozesuak praktika soziokultural gisa ulertzeko aukera eman du, eta ikusi da praktika horiek parte-hartzaileen interes eta beharrei lotutako indagazio-prozesuen bidez garatzen direla. Prozesu horiek taldeka eta gela-komunitatean sortutako bizitza-espazioetan gauzatzen dira, eta adostutako gaien inguruko esanahiak kolektiboki eraikitzen dituzte. Horretarako, haurren errepresentazioak modu progresiboan lantzen dira, tutoreek bultzatutako elkarriketa-testuinguruen bidez, hauek erraztaile-rola betetzen baitute.

Emaitza hauek ikerketaren garrantzia azpimarratzen dute, ikasgelako ikaskuntza-prozesu errealek behatu eta karakterizatzeko aukera ematen baitute, elkarrekintzaren analisiaren bidez. Gainera, hezkuntza-komunitateari esparru didaktiko-metodologiko

bat eskaintzen diote ikuspegi soziokulturaletik. Azkenik, eskola berrasmatzeko testuinguruan, elementu teoriko-praktikoak ematen dituzte, gaur egun Lehen Hezkuntzan garatzen ari diren eta Derrigorrezko Oinarrizko Hezkuntzara zabaldu daitezkeen ikaskuntza-agertoki berrien beharrezko karakterizazioan laguntzeko.